

EUSKAL KOMUNITATE ZIENTIFIKOAREN DATU-BASEA INGUMA

Euskaltzaindia eta Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) arteko lankidetzaren *hitzarrena*.

BILDUTA

Toki-egunak: Bilbon, 2003ko abenduaren 18an.

Alde batetik, Jean Haritschelhar jauna, euskaltzainburua.

Bestetik, Xabier Isasi Balanzategi jauna, –nortasun agiria: 14.927.649-M–, zeinek Udako Euskal Unibertsitatearen izenean eta hura ordeztuz baitihardu –IFZ: G 48218416; helbidea: Erribera kalea 14, 1-C, 48005 Bilbo, B/151/86 zenbakiaz Eusko Jaurlaritzako erroldan inskribaturik dagoena 1986ko 20az geroztik eta halaber onura publikoko aitormena lortu zuena 280/1990 Dekretuaren bidez–,

Udako Euskal Unibertsitatearen zuzendaria bere erakundearen izenean eta ordezkari, dagokion erakundeko organoak aitortzen dizkion ahalmenez baliatuz,

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE (PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA)

- LEHENA.** Euskaltzaindiak eta UEUK elkarri aitortzen dizkiote beren izate administratiboa nahiz zientifikoa, indarrean dauden legeek ezartzen dituzten baldintzen arabera hitzarmen hau izenpetu eta aurrera eramateko
- BIGARRENA.** Euskaltzaindiak eta UEUK lankidetzan bultzatu eta garatu nahi dute, unibertsitate mailako jakintza-arlo bakoitzean euskararen normalizazio prozesua bultzatu eta garatzeko
- HIRUGARRENA.** Euskaltzaindiak eta UEUK, esandako xedeari jarraikiz, euskaraz ekoiztako kultur produktuen erreferentzia erabilera publikoko datu-base batera ekarztearen oso interesgarria dela deritzote

LAUGARRENA. Euskaltzaindiak eta UEUK adierazten dute, 2003. urtean zehar *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)* Euskaltzaindiaren produkzioaz hornitzea eta datu-base bera erakundearen bertan zein gizarte-zabalean ezagutaraztea, komunitate euskaldunarentzat oso onuragarria dela.

ETA

HONAKO HAU HITZARTZEN DUTE:

Lankidetzaren esparru bat eratzea, Euskaltzaindiak euskaraz sortu, argitaratu eta zabaltzen duenaren oinarritzko informazioa *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basean (Inguma)* jartzeko.

Euskaltzaindia eta UEUren arteko lankidetzaren xedeak hauek dira: alde batetik, euskaraz ekoizten dena biltzea, sailkatzea eta ezagutaraztea, eta bestetik, euskaraz diharduten ikertzaile, sortzaile, eta oro har, emaile guztiak harremanetan jartzea, euskararen normalkuntza, eta bereziki, unibertsitate mailako jakintza-arlo bakoitzaren euskararen normalkuntza sustatzeko. Halaber, sinatzaileok *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)* unibertsitateen curriculum-garapenerako lanabes interesgarria dela adostendute.

Horrela, legeriari eta Euskaltzaindiaren eskuduntzei jarraikiz ondokoa adierazten dute:

BALDINTZAK

Lehena.—*Datu-basearen horniketa*

Behean sinatzen duten erakundeek hitzarmen hau izenpetzen dute, Euskaltzaindiak euskaraz ekoizten duenaren oinarritzko informazioa erabilera publikoko datu-basean jartzeko.

Datu-basearen izena: *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)*.

Euskaltzaindiak, *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)* osatzeko, euskaraz ekoiztutako ondoko osagaiak euskarri elektronikoan UEUren eskura jarriko ditu. Aipatu osagaiak besteak beste, honakoak dira:

- Euskaltzaindiak euskaraz argitaraturiko liburuei buruzko datuak (izenburua, argitalpen urtea, ISBN zenbakia, egilearen/-en izen-deiturak, eta azkenik, liburua itzulpena den ala ez).

- Euskaltzaindiak euskaraz argitaraturiko artikuluei buruzko datuak (aldizkariaren izena, artikulua izenburua, argitalpen urtea eta zenbakia, orrialdeak, egilearen/-en izen-deiturak).
- Euskaltzaindiak euskaraz emandako ikastaro/jardunaldi eta hitzaldiei buruzko datuak (ikastaro/hitzaldiaren izenburua, urtea, egilearen/-en izen-deiturak).
- Euskaltzaindiaren baitan euskaraz garatutako ikerketa-proiektuei buruzko datuak (izenburua, urtea, ikerlehen izen-deiturak).

Bigarrena

Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma) horniketa, datuen mekanizazioa eta datu-basearen kudeaketa Udako Euskal Unibertsitatearen ardura izango da. Euskaltzaindia *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* web-gunean *Erakunde laguntzaileak* atalean agertuko da.

Hirugarrena

Hitzarmeneko eremuaren barruan, *Udako Euskal Unibertsitateak* honakoak betetzeko konpromisoak hartzen ditu,

- Euskaltzaindiak UEUren eskura jarritako datuak adierazitako epean *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basean (Inguma)* jartzea.
- Euskaltzaindiaren ordezkariarekin, edo berak izendatutakoekin, *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* ezagutza plana adostea, aurkezpen ekitaldiak antolatzea eta beraietan parte hartzea.

Laugarrena

Euskaltzaindiaren ordezkariak, edo berak izendatutakoak, UEUren lanak errazteko eta jarraitzeko ardura hartuko du/dute. Era berean Euskaltzaindiak, honako konpromisoak hartzen ditu:

- UEUri datuak eskura jartzea eta eskuratzeko lanak erraztea.
- UEUrekin *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* ezagutaraztea eta hedapen plana adostea.
- *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Baserako (Inguma)* behar diren bitarteko eta baliabideak, adostutakoaren arabera, UEUren esku jartzea.

Bosgarrena.—Finantzaketa

UEUK *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* kudeaketarako behar besteko baliabideak bilatu eta jarri egingo ditu.

Euskaltzaindiak, bere aldetik, datuak eskuragarri jartzeko eta hedapen planean sortzen diren gastuak bere gain hartuko ditu.

Seigarrena.—*Sustapena*

Euskaltzaindiak *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basea (Inguma)* erabilera publikoko datu-base interesgarria izendatzen du eta horrela jakinaraziko dio euskal komunitate zientifikoko kideei. *Euskal Komunitate Zientifikoaren Datu-Basearen (Inguma)* hedapen plana, Euskaltzaindia eta UEUren artean adostua izango da. Era berean, hedapenerako behar diren azpiegiturak eta baliabideak Euskaltzaindia eta UEUren artean partitu eta adostuak izango dira.

Zazpigarrena

Hitzarmen hau 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta, bi aldeek hala iriztekotan, hurrengo bost urteetan indarrean iraungo du.

Zortzigarrena

Itun hau sinatzen duten unibertsitateak eta erakundeak hitzarmena kontrolatu eta zaintzeko koordinazio prozedura adosten dute, biak aske direla itundutakoaren arabera. Edozein modutan, biek dute ordezkari hitzartutakoari jarraitzeko:

Euskaltzaindiaren ordezkariak dira:

– Euskaltzainburua: Jean Haritschelhar


UEUren ordezkariak dira:

– UEUren zuzendaria: Xabier Isasi Balanzategi

Halaxe hitzartu da, goian esandako leku eta egunean.

Sinadurak:

Euskaltzaindiaren izenean



Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

UEUren izenean



Xabier Isasi Balanzategi,
UEUren zuzendaria